

## IRABAZI ITURRIAK

Gure irabazien zati handi bat, bezeroek erosten dituzten produktuen arabera aldatuko da. Guk produktuak herriko denda txikietan erosiko ditugu, eta gero, pixka bat garestiago salduko ditugu. Guk produktuengatik ordaindutako prezioari %35a gehituko diogu diru kopuru bat zerbitzuagatik irabazteko. Horrela, guk geure diru-iturri aldakorra izatea lortuko genuke.

Diru iturri finkoei dagokienez, bezeroek bazkide izateko aukera izango dute: hauek hilabetero diru kantitate bat ordaindu beharko dute; hain zuzen ere, 39,99€/hilabeteko. Hauek eskaera pertsonalizatuak edota eskaera bereziak egiteko aukera izango dute. Behar dituzten eta eskatu dituzten produktu edo gauza horiek, baldintza bat izan behar dute. Egunerokotasunean beharrezko dituzten gauzak izan beharko dira; esate baterako, medikamentuak edo elikatzeko beste edozein produktu. Nahi izanez gero, urte guztirako bazkide ere egin ahalko dira, urteko 299,99€ ordainduz. Modu honetara, irabazi iturri finkoak izatea ziurtatuko dugu. Hauek beharrezkoak baitira Apororder aurrera eraman ahal izateko.